Santi kurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila hogeita hiruko otsailaren hogeita bian, arratsaldeko zazpiretan, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ohiko bilkura egiteko, Ibernal Basterra Txasko Alkate andrea buru dela, eta idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2c) artikuluekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90. artikuluekin bat etorritik, beharrezko quoruma hasi ahal izateko egiaztatzen da, eta ondoren, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

## 1. AURREKO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Lehendakari andreak galdetu du ea korporazioko kideren batek oharren bat egin behar duen 2023ko urtarrilaren 17an egindako ohiko bilkuraren aktari buruz. Akta horren kopia bana helarazi zitzaion jaun-andreei bilkura honetarako zitazioarekin batera.

Gehiengo osoz (Basterra, Ruiz de Loizaga, López de Luzuriaga, Quintana Urrea, Castellano eta Herrador jaun andreen aldeko botoekin eta Muñoz, Sáenz eta Quintana Uriarteren abstentzioekin) aprobata da 2023ko urtarrilaren 17ko ohiko akta.

Aurkeztutako akta gehiengo osoz onartu da. Lehendakari andreak akta hori onartutzat jotzen du, eta akta-liburura transkribatzeko agintzen du, AJAren 110.2. artikuluekin bat eginez.

## 2. ALKATETZAREN DEKRETUAK

AJAren 42. artikuluan agindutakoa betetzeko, Alkateak labor azaldu dizkio Udalbatzari azken osoko bilkuratik hona hartu dituen ebazpenak, eta Osoko Bilkura jakinaren gainean dagoela jo da. Hona hemen ebazpenak:

2023KO DEKRETUAK

|    |            |   |
|----|------------|---|
| 10 | 2023/01/16 | SANTIKURUTZEKO ARRABAL KALEKO 95 ZENABKIAN FATXADA PINTATZEKO OBRE LIZENTZIA ONARTZEA                                 |
| 11 | 2023/01/16 | ORBISOKO KALE NAGUSIKO 30. ZENBAKIAN AUTOKONTSUMORAKO PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA           |
| 12 | 2023/01/16 | BANKU BIDALKETA ONARTZEA  |
| 13 | 2023/01/18 | KANPEZUKO UDALEKO IDAZKARI KONTU HARTZAILEAREN ZERBITZU-EGINKIZUNERAKO ESKAERA ONARTZEA                               |
| 14 | 2023/01/20 | ANTOÑANAKO GOIKO ARKUPEAK 1 KALEA EGITEKO BIGARREN EXEKUZIO AGINDUA   |
| 15 | 2023/01/20 | SANTIKURUTZE KANPEZUKO VILLA KALEKO 16 ZENBAKIKO BIGARREN EXEKUZIO AGINDUA  |
| 16 | 2023/01/20 | ROKODROMO OBRAREN LEHEN ZIURTAGIRIA ONARTZEA  |
| 17 | 2023/01/20 | GAZTELEKU ETA LUDOTEKA ZERBITZU KONTRATUAREN AZKEN LIKIDAZIOA ONARTZEA 2022. URTEARI DAGOKIONEZ                       |
| 18 | 2023/01/30 | SANTIKURUTZE KANPEZUKO GAZTELURA IGOTZEKO 19-B KALEKO BARRUKO OBRAK LEGETZTATZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA               |
| 19 | 2023/01/30 | GAINBALIOEN LUZAPENA  |
| 20 | 2023/01/30 | 2023KO URTARRILEKO UDAL LANGILEEN NOMINAK ONARTZEA  |
| 21 | 2023/02/01 | KANPEZUKO PEDRO ANTON KALEKO 20 ZENBAKIKO ETXEBIZITZA OKUPATZEKO LIZENTZIA EMATEA                                     |
| 22 | 2023/02/01 | GAINBALIOEN LUZAPENA  |
| 23 | 2023/02/02 | BANKU BILDAKETA ONARTZEA  |
| 24 | 2023/02/02 | IKASTETXEEN BATZORDE EKONOMIKOARI ZORRA KONPENTSATZEA, UDALAGUNTZAKO OBRAK  |
| 25 | 2023/02/02 | IKASTETXEETAKO BATZORDE EKONOMIKOARI ZORRA KONPENTSATZEA, BARANDA KONPONTZEA  |
| 26 | 2023/02/03 | OBRA LIZENTZIA EMATEA OLARIZUKO 13.2 KVSC 4654-4 KO AIREKO LINEA 1180 ETA 1430 ZENBAKIDUN EUSKARRIEN ARTEAN ALDATZEKO |
| 27 | 2023/02/03 | SANTIKURUTZE KANPEZUKO LA VILLA KALEKO 16. ZENBAKIAN EGINBEHARRAK BETETZEKO AGINDUA                                   |
| 28 | 2023/02/03 | GAINBALIOEN LUZAPENA  |
| 29 | 2023/02/03 | BANKU BIDALETAKA ONARTZEA   |
| 30 | 2023/02/08 | GAINBALIOEN ESPEDIENTEEN LIKIDAZIOA ONARTZEA  |
| 31 | 2023/02/08 | 2023KO AFAREN BERDINTASUNERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN KONKURRENTZIA  |
| 32 | 2023/02/09 | 2023KO OTSAILAREN 22KO OSOKO BILKURA DEIALDIA   |

Alkateak udalbatzako kideren batek dekretuei buruzko oharren bat egin nahi duen galdetu du.

Quintana Uriarte andreak hartu du hitza, eta honako dekretuen inguruan galdetu du: 13 eta 16. Zerbitzu-eginkizuna nork eskatu duen jakin nahi du, bai eta rokodromoaren ziurtagiriaren zenbatekoa ere. Alkateak erantzun du udal honetako plazaren titularrak, Oliveira Barrak jaunak, eskatu duela zerbitzu-eginkizuna. Beste leku batera lekualdatzea eskatu duela zehaztu du. Rokodromoko obraren ziurtagiriari dagokionez, zenbateko zehatza adierazi da, 13.712,00 euro.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

**3.- UDALETXEA HANDITZEKO PROIEKTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2022-2023 FORU PLANAREN PROGRAMA**

2022-2023 programari dagokion Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko diru-laguntzen deialdiaren barruan, Kanpezuko udaletxea handitzeko obrak izeneko proiektuarekin udal honek aurkeztutako eskabidea ikusi da. Proiektu hori Udaltzarak onartu zuen 2022ko uztailaren 22an egindako ezohiko bilkuran.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 14ko 356/2022 erabakia ikusi da, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2022-2023 deialdiaren ebazpena onesten duena, eta 197.680,19 euroko hasierako diru-laguntza ematen duena.

Diru-laguntza jaso duen obraren exekuzioak bete beharko dituen baldintzen zehaztapenak ikusita, aipatutako programaren kontura.

Exekuzio proiektua idazteko zerbitzu-kontratu txikia esleitzeko prozedura aztertu da, dagozkion eranskinekin eta honako dokumentu hauekin: kalitate-kontrola, segurtasun eta osasun azterlana eta eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketari buruzko azterlana, obraren zuzendaritza, eta udaletxea handitzeko helburua duen segurtasun planaren jarraipena.

Edgar Briz Bulet eta Seila Ejido Rodriguezek aurkeztutako exekuzio proiektua aztertu da.

Aztertu da Udaltzarako arkitektoak 2023ko otsailaren 9an egindako aldeko txostena baldintzekin.

#### **ESKU-HARTZEEN EZTABAIDA:**

Kontuan hartu da Udaltzarako osoko bilkuraren eskumena dela, eskatutako zenbatekoaren arabera, Toki Araubidea erautzen duen 7/85 legearen 21 eta 22 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

#### **XEDAPEN ZATIA:**

**ERABAKIA:** Gehiengo osoz erabaki da (Basterra, Sáenz, Quintana Urrea, Muñoz, López de Luzuriaga eta Ruiz de Loizaga jaun-andreen aldeko sei botoekin eta Quintana Uriarte, Castellano eta Herrador jaun-andreen abstentzioekin).

**LEHENENGOA.-** Arabako Kanpezuko Samuel Picaza plazako 1. Zenbakian dagoen udaletxea handitzeko proiektua onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari bidaltzea, 22/10087-P espedientean jasotako gainerako administrazio-dokumentazioarekin batera, bertan ezarritako epean.

#### **4. PREMIAZKO ZERGA DEKRETU ARAUEMAILEA EGOKITZEKO GAINBALIOEN ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Urgentziazko Arau Dekretua, 2022ko abenduaren 30ean argitaratua, ALHAO, 150. Zenbakiarekin ikusi da. Horren bidez, irailaren 29ko 4/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onartutako hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren Testu Bateginaren aldaketa onartzen da.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza aldatzea proposatzen duen testua aztertu da.

Idazkaritzak 2023ko urtarrilaren 3an egindako txostena ikusi da, aplikatu beharreko legeriari eta aipatutako Udal Ordenantzaren aldaketa onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Udal honen web atariaren bidez egindako kontsulta publikoaren emaitza ikusi da.

Ondorioz, eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 15-1 eta 58. Artikuluak 25/1988 Lege, uztailaren 13koa, Estatuko eta Tokiko Tasen Lege Araubidea aldatzekoa eta Ondare Prestazio Pubikoak berrantolatzekoa. 39/1988 legearen 17.1 eta 39/1988 legearen 16. Artikulua kontuan hartuta, behin-behinean, bozketen emaitzetan oinarrituta, honako ERABAKIA hartu da:

**LEHENENGOA.-** Gehiengo osoz erabaki da (Basterra, Sáenz, Quintana Urrea, Muñoz, López de Luzuriaga eta Ruiz de Loizaga jaun-andreen aldeko sei botoekin eta Quintana Uriarte, Castellano eta Herrador jaun-andreen abstentzioekin) hasiera onarpena ematea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari.

**BIGARRENA.-** Behin-behineko erabaki hau jendaurrean jartzea udaletxeko iragarki-oholean, ALHAOn argitaratzen denetik hogeita hamar (30) eguneko epean, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Aldi berea, ordenantza horren aldaketaren iragarkia argitaratzea Udalaren web atarian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)), eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketek ekarpen osagarriak jasotzeko.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, behin betiko erabakia hartuko da, eta aurkeztutako erreklamazioak ebaziko dira. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko erabakia, kategoria horretara automatikoki eramandako behin-behineko erabakia eta aldaketaren testu osoa ALHAOn argitaratuko dira.

**BOSGARRENA.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak izenpetzeko eta sinatzeko.

## 5. LANGILEEN ORDAINSARIEN 2023KO GEHIKUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkate andreak hartu du hitza, eta EUDELeK sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %2,5 igotzeko gomendioari buruz jasotako proposamenaren beri eman du, 2022ko abenduaren 31m indarrean zeudenen gainean.

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen III. Tituluko I. Kapituluko 19. Artikuluan xedatutakoaren edukia aztertu da, 2023ko ekitaldirako ordainsari igoeren mugei buruzkoa.

EUDELen gomendioa sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien igoerari dagokionez, udalbaltzak aho batez onartu du

**BAKARRA.-** Udalaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 2,5eko igoera onartzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekeko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinateasunari dagokionez.

## 6. KULTURA, KIROL ETA EUSKARA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkateak kultura, kirol eta euskara jarduerak diruz laguntzeko deialdiaren berri eman die bertaratutakoei.

Kultura, kirol eta euskara jardueretarako diru-laguntzen oinarri arautzaileak aztertu dira.

Diru-laguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza ikusi da. Ordenantza hori 2010eko ekainaren 9ko 63. ALHAOn argitaratu zen.

Deialdi publikoa egiteko beharra ikusita, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta aurrekontua betearazteko arauetan ezarritakoaren arabera.

#### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho batez erabaki da

**LEHENENGOA.-** Kultura, kirol eta euskara jardueretarako diru-laguntzen deialdia onartzea Kanpezuko Udalarentzat 2023ko ekitaldia.

**BIGARRENA.-** Deialdi hau ALHAOn, diru-laguntzen oinarri nazionalean, iragarki taulan eta udalaren web orrian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)) argitaratzea.

#### **7. JAIOTZA-TASA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate andreak jaiotza tasa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren berri eman die bertaratutakoei. Azaldu du handitu egin dela jaiotza-tasa sustatzeko partida, aurreko urteekin alderatuta.

Ikusi dira jaiotza-tasa eta erroldatzea sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak, udal honek 2012ko uztailaren 10ean egindako ohiko bilkuran onartutakoak.

Diru-laguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza ikusi da. Ordenantza hori 2010eko ekainaren 9ko 63. ALHAOn argitaratu zen.

Deialdi publikoa egiteko beharra ikusita, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta aurrekontua betearazteko arauetan ezarritakoaren arabera.

#### **ESKU HARTZEEN EZTABAIDA:**

Quintana Uriarte andreak hartu du hitza partida handitzearen arrazoiari buruz galdetzeko. Iaz partida agortu zen galdetu du.

Alkateak erantzun du, oro har, ez dela partida agortzen, eta oraingoz ez dela halakorik gertatu. Hala ere, jaiotza gehiago gertatzen diren kasurako handitzea erabaki da, eta jaiotza gehiago egotea espero da.

#### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho baten hartu da.

**LEHENENGOA.-** 2023an jaiotza-tasa sustatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea.

**BIGARRENA.-** Deialdi hau ALHAOn, diru-laguntzen oinarri nazionalean, iragarki taulan eta udalaren web orrian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)) argitaratzea.

## **8. ADMINISTRAZIO-BATZARRETARAKO ETA GASTU OROKORRETARAKO ETA JAIETAKO GASTUETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkateak Administrazio Batzarretarako eta gastu orokorretarako eta jaietarako diru-laguntzen deialdiaren berri eman die bertaratutakoei. Aurreko urteetako ildo berari eusten zaiola azaldu du.

Kanpezuko Administrazio Batzarrentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak aztertu dira, tokiko jaietako funtzionamendu-gastu orokorrak finantzatzeko.

Deialdi publikoa egiteko beharra ikusita, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta aurrekontua betearazteko arauetan ezarritakoaren arabera.

### **ESKU HARTZEEN EZTABAIDA:**

Quintana Uriarte andreak hartu du hitza, eta adierazi du bere taldeak beti eskatu duela Administrazio Batzarren aldeko partida handitzeko. Hala eta guztiz ere, aldeko botoa emango dute.

### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho baten hartu da.

**LEHENENGOA.-** Kanpezuko Administrazio Batzarrentzako diru-laguntzen deialdia onartzea, 2023ko ekitaldiko tokiko jaietako funtzionamendu-gastu orokorrak finantzatzeko.

**BIGARRENA.-** Deialdi hau ALHAOn, diru-laguntzen oinarri nazionalean, iragarki taulan eta udalaren web orrian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)) argitaratzea.

## **9. ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkateak eraikinak birgaitzeko diru-laguntzen deialdiaren berri eman die bertaratutakoei.

Eraikinak birgaitzeko diru-laguntzen oinarri arautzailea aztertu dira.

Deialdi publikoa egiteko beharra ikusita, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta aurrekontua betearazteko arauetan ezarritakoaren arabera.

### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho baten hartu da.

**LEHENENGOA.-** Eraikinak birgaitzeko diru-laguntzen deialdia onartzea 2023ko ekitaldia.

**BIGARRENA.-** Deialdi hau ALHAOn, diru-laguntzen oinarri nazionalean, iragarki taulan eta udalaren web orrian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)) argitaratzea.

## **10. ENPLEGURAKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkateak enplegurako laguntzen deialdiaren berri eman die bertaratuei.

Enpleguaren aldeko Kanpezuko programako langileak kontratatzekeo pizgarriak eskuratzeko baldintzak arautzen dituzten oinarriak aztertu dira.



Deialdi publikoa egiteko beharra ikusita, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legean, lege hori garatzeko erregelamenduan eta aurrekontua betearazteko arauetan ezarritakoaren arabera.

#### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho baten hartu da.

**LEHENENGOA.-** 2023KO EKITALDIRAKO "enpleguaren aldeko kanpezu" izeneko programako langileak kontratatzeko pizgarriak eskuratzeko diru-laguntzen deialdia onartzea.

**BIGARRENA.-** Deialdi hau ALHAOn, diru-laguntzen oinarri nazionalan, iragarki taulan eta udalaren web orrian ([www.kanpezu.eus](http://www.kanpezu.eus)) argitaratzea.

#### **11. 2022KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Alkatea andreak hartu du hitza erakunde honen 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari buruzko informazioa emateko. 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitzari buruzko informazioa eman da; emaitza hori LAUROGEITA HAMABI MILA EHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (92.181,91 euro) da. Era beran, MILIOI BAT HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMBOST EUROKO (1.393.980,75 euro) diruzaintzaren azken existentziaren berri eman da. Azkenik, azaldu du eragindako diruzaintzako soberakina LAUROGEITA HAMABOST BOSTEHUN EURO ETA ZAZPI EURO ETA ZENTIMO BAT dela (95.557,01 euro).

Alkateak galdetu du ea udalbatzako kideren batek oharren bat egin nahi duen.

Ez dago adierazpenik.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **12. MARTXOAREN 8A DELA ETA EGINDAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Sáenz Sáenz andreak hartu du hitza, eta honako irakurketa hau egin du martxoaren 8aren harira, Eudelek jasotako aitorten-ereduari dagokionez.

*"Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuen eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.*

*Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da...*

- *botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.*
- ***zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.*

- **zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritzi** aurre egitea.
- **emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- **lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloraturaz.
- **emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi interseksionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, euskal udalerririk, gure eskumenen markoan, konpromisoa hauek hartzen ditugu: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerrri bakoitzaren beharretara egokituta.
2. Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea
3. Mugimendu feministaren eta emakume-elkardeen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.
5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko
6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk
7. EUDEleri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea dezala eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala”.

Bozkatu ondoren, aho batez onartu da Adierazpen Instituzionala, 2023ko martxoaren 8a dela eta.

### 13. LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK

Alkateak hitza hartu du zinegotzietan hitza emateko. Lehenik eta behin, Hirigintzako zinegotzi Ruiz de Loizaga jaunak hartu du hitza, eta esan du joan den ostiralean hamabi pertsona inguru bildu zirela etxebizitzaren arazoaren inguruan lehen hartu-eman egiteko. Jakinarazi du borondatez joan ziren pertsonen proposatu zutela sortutako lantalde horri jarraipena ematea, erosketa, salmenta edo alokatzeari buruzko informazioa kontrastatzeko. Era berea, aipatu du, besteak beste, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Plan Berezia jorratu zirela. Ildo horretan, aipatu du fitxa batzuk banatu direla, interesdunek izena eman ahal izan dezaten. Azkenik, adierazi du bildutako informazioa guztiarekin benetan egon daitezkeen beharrazko kontrastatuko direla.

Sáenz Sáenz andreak hartu du hitza, gizarte-arloko zinegotzi gisa, eta datozen asteetarako programatuta dauden ekitaldien berri eman du. Zehazki, otsailaren 25ean,

larunbata, izango den boilurraren inguruko prestakuntza aipatzen du. Gogoratu du bertaratzeko beharrezkoa dela aldez aurretik izena ematea. Igandea, otsailaren 26an "araba bizikletaz" jarduera izango da udan pilotalekuan, eta hainbat jarduera egingo dira bizikletekin. Martxoaren 8ari dagokionez, martxoaren 4rako, larunbatean, hainbat talde ea ordutegitarako antolatu da "scafe room" saioa. Aldez aurretik udalean izena ematea beharrezkoa dela gorarazi du. Azkenik, datorren martxoaren 7an, 18:00etan, Lupe Lekuonaren ipuin kontaketa izango dela aipatu du.

Jarraian, Muñoz Morentin Ogasun zinegotziak hartu du hitza, eta egiten ari diren obren errepassoa egin du. Lehenik eta behin, aipatu du rokodromoko obra azken fasean dagoela, eta martxoaren amaierarako amaituta egon behar duela. Udaletxearen handitzea, onarpen-puntuan aipatu den bezala, prest dago eta, beraz, hurrengo urratsak baloratuko direla aipatzen du, batez ere finantza-planari dagokionez. 2023 Foru Planari dagokionez, argitaratuta dagoela eta epea martxoaren erdialdera arte irekita dagoela aipatu du. Esan du hainbat proiektu baloratzen ari direla teknikariek in batera. Horretarako, aurrekontuetan aurkeztutako zerrenda kontuan hartzen ari direla esan du. Furgonetari dagokionez, esan du hainbat aurrekontu biltze ari direla erosketa egiteko. Espero dugu martxoaren hasieran gaia itxita geratzea.

Muñoz Morentin jaunak esan du 2022ko ekitaldi likidatuta geratu dela. Adierazi du kontuen egoera ez dela oso esanguratsua exekuzio egoeran. Diruzaintzaren egoera ona da, eta dena ildo beretik joatea da planteamendua. Legealdiko azken osoko bilkurari begira, horiek egoeraren berri emango da.

#### **14. GALDE-ESKEAK**

Alkateak udal bozeramaileen taldeari galdetu dio ea gairen bat adierazi nahi duten, eta ez da ezer esan.

Hurrengo Udalbaltza 2023ko martxoaren 14an edo 21ean 19:00etan izango dela jakinarazten da.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkurari amaiera eman dio idazpuruaren eguneko 19:20an. Nik, idazkariak, horren fede ematen dut.

Alkatearen oniritzia



Idazkaria,



